01 27

MAEZTUKO ASFALTOAK


Asfaltoa edo betuna substantzia beltz bat da, eta erdi solido moduan agertzen da giroko tenperaturan. Tradizioz, zoladura jartzeko eta iragazgaizteko erabili ohi da. Egoera naturalean edo harkaitzei kolorea ematen duen substantzia gisa aurki daiteke. Gaur egun, petrolio finketaren ondoren geratzen den produkturik astunena da.

Atauri Arraia-Maeztu udalerriko herri erakunde bat da. Maeztuko hego ekialdetik 2 kilometrotara kokatuta dago, hots, udalerriko hirigune nagusia.

Zonalde honetan diapiro bat existitzen da, eta horregatik, asfaltoa dago bertan. Diapiro bat, oso trinkoak ez diren material zaharrak igotzean datza. Horiek, igotzerakoan, trinkoagoak diren beste material batzuk zulatzen dituzte. Prozesu horren emaitza bestelakoa izan daiteke (konplexuagoa edo ez), baina horren ondorioen artean, zenbait inguruabar emanez gero, petrolio edo asfalto poltsak sortaraztea aurki dezakegu.

Oraingo honetan, asfaltoa Campaniarreko kalkareniten pitzaduretan eta poroetan iragazi da, eta bere kontzentrazioa nahikoa da(%10 eta 20 artean) haien (kalkarenitak) ustiapen ekonomiko bat 1856. urtetik errentagarri bilakatzeko, lehendabizi meategi moduan eta ondoren, lur gainean (4 eta 5).

1927. urtetik aurrera, gertu igarotzen zen “Euskal Herriko Trenaren” (2) bidea asfaltoaren ustiaketarako onuragarria izan zen. Hori zela eta, tren-geltokia (1) ustiaketaren (3) aurrealdean eraiki zen, eta baita ateratako materialaren garraioari onura handia ekarri zion bazterbide bat ere.




Gaur egun, Maeztuko Asfaltoen ustiaketa itxita dago, eraikinak, meategien tunelak, eta abar. kontserbatzen diren arren.

Hau ez zen eskualdeko asfalto ustiaketa bakarra, baizik eta bat baino gehiago egon ziren. Horietako batzuk oraindik aktibo daude.

Diapiroen eta petrolioaren artean lotura handia dagoenez, asfalto ustiaketaren inguruan petrolio-zundaketa (6) bat egin zen, “Atauri 1” izenekoa. Hura 1967an burutu zen, eta 1923 metro sakonera lortu zuen. Emaitzak petroliorik edo gasik ez zegoela adierazi zuen.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi UTM 30N ETRS89 // X: 546810.9942 // Y: 4729837.1870 // Z: 669 m. 1. Euskal Herriko Trenaren Geltokia. 2. Euskal Herriko trenaren trenbidea (egun pista da). 3. Enpresaren Instalazioak. 4 eta 5. Lur gaineko ustiaketak. 6 Atauri 1 petrolio zundaketaren hormigoizko plataforma.



Litologia [sinplifikatua] + itzalak 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

1. Xafletan antolatutako kare-harriak eta dolomiak, margokalizak eta limolita estratifikatuak, bretxa tektonikoak (Triasikoa). 3. Buztin gorriak, berdeak eta grisak, bretxa tektonikoen iestoekin eta ertzekin (Triasikoa).

13. Kaltziorik gabeko areak eta karedun hareharriak. Buztin eta karbonato mailak (Goi Kretazikoa).

15 Kalkarenita bioklastiko estratifikatuak edo masiboak. Bretxoide maila tuparrizaleak eta hareatsuak (Goi Campaniarra).

44 Toben eta trabertinoen pilaketa (Holozenoa).


46 Tanga antropgenikoak (Holozenoa). Testua EEEko 1:25.000 mapa topografikoari dagokio.



Maeztuko Asfaltoen guneko eraikinen ikuspegi orokorra, meategi ustiaketaren oinean kokatuta.



Euskal Herriko Tren geltokiaren hondakinak, Enpresaren instalazioen aurrean.



Ortoargazkia 1956/57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala .1. Euskal Herriko Tren Geltokia. 2 Euskal Herriko trenbidea (egun pista berdea). 3 Enpresaren instalazioak. 4 Meategi ustiaketa.